

Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Armak, desegitea...

URTARRILAREN 12A iragan da eta ikusi, entzun eta irakurritakoen ondoren, komeni da ondorio batzuk ateratzea. Hona hiru:

1) Presoen egoera konpontzen has dadin, mobilizazio erraldoiak egitea ezinbestekoa da. Euskal gizartean gaiarekiko sentiberatasun handia dagoela erakustez gain, konpontzeko dagoen arazo larri bat indarrez azaleratzen dute.

Urkullu lehendakariak espetxe politikan aldaketak eskatuko dizkio Mariano Rajoyri. Begiruneaz ere mintzatu da lehendakaria, baina azpimarratzea manifestazioan 100.000 herritar egon zirela eta ez 3.000.000 –denei errespetua diela esateko bada ere– ez da begirune erakusle txukunena. PPK ere, esaterako, hori bera azpimarratu zuen iazko Diadako milioi eta erdi pertsonari buruzko manifestazioaz, milioi gehiago geratu zirela etxean.

2) Presoena bake prozesuaren testuinguruan konpondu behar da eta, ika-miken gainetik, EAJK eta EH Bilduk gutxienezko akordio batera heldu behar dute gai honetan. Edo EH Bilduk eta PSEk lortu behar ote dute lehenik? Loiolako mahaiari kea zerionetik ere ez da hainbeste pasa. Azaldu liteke zer aldatu den hainbeste ordutik hona elkarrizketa gunerik –berdin da non– errepika ez dadin? Gerrarik bortitzenetan etsai gisa aritutakoek akordioetara iristeko gai badira, nola ez da posible izango hemen ere gauza bera lortzea? Ezin da ahanzturarik egon, ezta mendekurik ere, baina bi kontzeptuon artean bada negoziatzeak tarterik. Espainiako legea bete behar dela? 600 gatiburekin zer erremedio! Eta hala ere, hor ere bada konponbiderako tarterik.



ASKATASUNTAUPADAK/INSTAGRAM

Arrazoi desberdinengatik bada ere, eta II. Mundu Gerraren irabazle nagusi gisa, AEBek eta Errusiarrek argi zuten Alemania lagundu behar zutela bere burua altxatzen. Eta hala egin zen, baina nagusitze nahiak, mesfidantza eta beldurraren ondorioz, Alemaniaren zatiketa eta gerra hotza finkatu zuen 40 urtez. Irlandara begiratzea besterik ez dago bake prozesuak luzeak direla ikusteko, baina

Horiek izan daitezke ETAREN azken kartutxo sendoenak, hobe berandu baino lehen erabiltzea

hasiera bat behar dute, bestela gai batzuk izoztu egingo dira, gaizki konpondu eta euskal gizarteak urtetan ordainduko du.

3) ETA ez da arazorik handiena gaur egun, baina bai ikusgarriena eta erabilgarriena, manipulagarriena: “ETA desagertu arte ez da mugimendurik emango” leloa da

horren lekuko adierazgarriena. “Eta bestela ere ez”, gaineratu du Alberto Ruiz-Gallardon PPko Justizia ministroak, baina hori ez da hain sinesgarria.

Bihar bertan ETAK armak entregatu eta deseginda ere, presoak ez lirake kalera ateratzen hasiko. Baina denak adierazten du, bake prozesuan aurrera egiteko eta presoen gaia konponbidean jar dadin, erakunde armatuak urrats

horiek eman beharko dituela. Dagoeneko ez dago galtzekorik urrats horietan, aurrera begira dena da irabazteko.

Alde bakarreko pausuen bidez, errealitateari egokitze duen ahalmena argi erakutsi du ezker abertzaleak. Horiek izan daitezke ETAREN azken kartutxo sendoenak, hobe berandu baino lehen erabiltzea. Nekez pasatuko da beste urtebete berdin. ■

